

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI IGERIKETA

Llopis, Mundialeko finalean

Iñigo Llopisek ongi hasi du Munduko igeriketa txapelketa paraolimpikoa Londresen. Atzo hasi ziren probak eta S8 100 metro libreetan finalerako sailkatu zen 1:02.31 denborarekin. Kronika ixterakoan oraindik ez zuen finala jokatu eta zortzigarren denborarekin sailkatu zen. Domina lortzea ez zen erraza. Txapelketan beste bi proba gehiago egingo ditu. Gaur 100 bizkarren arituko da eta etzi, ostegunean, 400 libreetan egingo du igeri.

HERNANI KULTURA

Nagore Legarreta, Sormenaren Kabian

Argazkilari hernaniarrak bertan parte hartzeko beka irabazi du Beñat Rallarekin batera eta Alkizako espazio desberdinetan bere 'Ibaia ez da toki bat' proiektua garatuko du irailean zehar.

FAGUS Alkiza Interpretazio Zentroak, Sormenaren Kabian artistentzako egonaldiaren bigarren edizioa jarri zuen mar txan maiatzean eta Nagore Legarreta artista eta argazkilari hernaniarraren *Ibaia ez da toki bat* proiektuak jaso du bertan garatzeko beka. Berarekin batera Beñat Rallak ere lortu du beka.

Bigarren edizioan 24 proposamen aurkeztu ziren eta hernaniarraren lanak eraman zuen artistentzako egonaldia. Maiatzean Sormenaren Kabian parte hartzeko deialdi irekia egin zuten eta proiektuetatik epaimahaiak Legarretarena aukeratu zuten.

Arte sormena hirietatik deszentralizatu nahi da

Alkizako Udalak eta herriko eragileek, artistek, hausnartu, sortu eta lan egiteko espazio bat sortu dute. Orain arte, kulturari lotutako ekitaldi gehienak hiri-eremuetan egin izan dira eta, egitasmo honenkin, arte-sormena, kultura bera, hirietatik deszentralizatu nahi dute. «Gure herria Gipuzkoako mapa kulturalan kokatu nahi dugu, etorkizunean, landa-eremuko sorgune moduan erreferente bat izan dadin» diote Kabitik.

Sormenaren Kabia kultura eta ezagutzak elkarbanatzeko, esperimentaziorako eta difusiorako gunea da. Artearen sorkuntza gizarteratzeko baliabide bihurtu nahi dute Gipuzkoa osorako, eta, horretarako lehen urratsak eman dituzte jada.

Irabazlea esleitzeko kon-tuan hartutako irizpideak: originaltasuna, Fagusen hiru ar-



Nagore Legarretak jaso du Sormenaren Kabirako beka eta Alkizan egongo da irailaren 22ra arte.

datzekin (natura, gizakia, kultura) koherentzia, sormenaren Kabiak eskaintzen dituen lan-espazioetara eta baliabideetara egokitzapena izan dira antolatzaileen hitzetan.

Bi aste eta 1.000 euro dituzte euren ideiei forma emateko Legarreta eta Rallak bi aste izango dituzte euren ideiei forma emateko. Lete nekazal etxea, Koldobika Jauregiren Ur Mara Museoa, Inazio Urruzola Txakolindegia eta Alkizako basoak, larreak zein pagadiak izango dira artisten inspirazio iturri eta baita bat-bateko lantoki ere. Proiektua aurrera eramateko, artistek mila euroko beka bana jasoko dute.

'Ibaia ez da toki bat' ingurura egokituko da

Ibaia ez da toki bat, proiektuan hasitako ideia garatu nahi du egonaldi honetan Legarretak.

Hainbat ibai erreferentzi hartuta (Urumea ibaia eta Poloniako Odra ibaia) honako galdera hauei erantzun nahi izan die Legarretak: «gizakiak historikoki ibaien inguruan antolatu garenez, zein harreman izan dugu harekin? Ubide hutsa al da ibaia? Izaki biziduna al da? Ez al da gure birrikak bezala hazi eta uzurtzen? Ez al du bere tokia erreklamatzeko? Ibaiak begiratzen al gaitu? Eta hala balitz, nola ikusten gaitu?».

Hernio eta bertako basoekin bertakoek dituzten lotura emozionalak azalarazteko

Epaimahai Jon Umerez Urrezolak, Alkizako alkate ohia eta EHU-ko irakaslea; Lorea Agirre Dorronsorok, kazetaria eta Jakin aldizkari zuzendaria; Koldobika Jauregi Zinkunegik, eskultorea; Aintzane Lasarte Garatek, CPIE Euskal Itsas-

bazterra erakundeko kultura bitartekaria eta Nekatoenea artisten egonaldietako arduraduna; Ramon Agirre Lasartek, aktorea eta idazlea; eta, azkenik, Haizea Barcenilla Garciak, Artearen historian doktorea EHU-ko irakaslea eta arte kritikoa, osatu zuten. Hernaniarraren proiektuak balorazio benetan ona izan zuen.

Legarretaren helburua bertako biztanleek inguruko natur ondarearekin dituzten lotura emozionalak azalarazteko ekintza artistiko kolektibo bat planteatzea da. Kasu honetan ibaiari baino, agian, Hernio eta bertako basoekin lotutakoa.

Nagore Legarretak atzo arratsaldean hasi zuen egonaldia Alkizan eta irailaren 22ra arte egongo da bertan. Irailaren 16 eta 18an tailer bana eskainiko du. ||

HERNANI URTEKARIA

Bihar aurkeztuko da Biterin urtekaria

Hernanin ikusiyak erakusketa-aren amaierarekin batera, *Hernani 2018/19* urtekaria aurkeztuko da bihar, Biterin bertan 19:30etan. *Hernani* urtekariaren 25garren edizioa da aurtengoa, eta horregatik ale berezi bat prestatu da. Ale berezi hori, 300 orrialde baino gehiagoko bilduma bat da; eta hainbat irizpide desberdin jarraituz 60 bat artikulua aukeratu dira aurreko 24 argitalpenetan kaleratu direnen artean, Historiarekin eta ondarearekin zerikusia duten artikulua nagusi izanik. Ekitaldian bertan banatuko da urtekaria. ||

HERNANI DOBERA

Euskara Ari Duri segida emateko, bilera gaur

Segida eman nahi dio Dobera Euskara Elkarteak, udazkenetik aurrera, *Baietz Hernanik!* egitasmoak utzitako «arrasto politari». 2018 urtean zehar antolatu zen, Euskara Ari Duren baitan, herrian euskeraren erabilera indartzeko. Horretarako, bilera irekia deitu dute gaur, arratsaldeko 19:00etan hasita, Biteri kultur etxean. Gainera, Euskaraldia 2020an ere «herrian txertatzeko modua» egin nahi dute, iaz Euskal Herri mailan antolatu zen ekimenak, datorren urtean bigarren kolpea izango duela eta. ||

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

OINDI
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

ELISKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
CEPA Hernani HHI
Helduen hezkuntza
Irailean MATRIKULA ZABALIK 2019/20 ikasturterako

- DBH-ko TITULUA lortu
- Ingelesa
- Heziketa zikloetarako sarbide frogen preparazioa
- Atzerritarrentzako gaztelera

Antziola 62, Hernani 943 33 53 18

GAUR Giro oso ezegonkorra. Gauza asko elkartuko dira, baina azpimarratzeko euria izan daiteke. Ugari egin dezake eta zenbait lekutan zaparrada trumoiatsu handiak bota ditzake. **Min.12° / Max.17°**

BIHAR Kantauri isurialdera lainotzar ilunak sartuko dira itsasaldetik eta tarteka euria egingo du, baina asteartean baino gubiago. Temperatura gradu pare bat igoko da. **Min.14° / Max.18°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



URUMEA EUSKERA



Andoaingo goiko plazan egin zen aurkezpena Larramendiren bustoaren aurrean.

Euskera ikasteko aukera asko

Irekita dago 2019-2020 ikasturterako matrikulatze epea. Ia-ia doakoa eta kasu batzuetan doakoa izan daiteke euskara ikastea Buruntzaldean.

EUSKERA ikasteko 2019-2020 ikasturte berrirako matrikulazio epea dagoeneko irekita dago. Iraila da matrikulatzeko momentua, eta euskaltegi-tako ateak zabalik daude, bai matrikula egiteko, baita ere, noski, informazioa emateko.

Euskera ikasteko aukera asko dago Buruntzaldeko sei herrietan, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen.

Buruntzaldeko Udalek aurrean ere elkarren eskutik deia egin diete herritarrei, euskera ikasi edo hobetzeko helburuarekin euskaltegi-tan izena eman dezaten. Aipatutako sei Udalak Andoainen elkartu ziren pasa den ostiralean Buruntzaldeko zortzi euskaltegi-tako ordezkariekin batera, helburu batekin: euskaltegi-tan 2019-2020 ikasturterako martxan duten matrikulazio kanpaina babestu eta herritarren artean bultzatzea.

Manuel Larramendi euskaltzale sutsuaren bustoaren bueltan elkartu ziren sei udaletako ordezkariak eta zortzi euskaltegi-takoak. Ezaguna da Manuel Larramendik euskerari buruz (euskeraren gramatikari buruz, zehatzago esanda) idatzi zuen leloa: *ezina, ekinez eginga*. Larramendiri jarraituz, Udalek adierazi dute, inondik ere ez dela «ezinezkoa» euskera ikastea; alderantziz, pixka bat saiatuz eta «ekinez», beste edozein hizkuntza bezala ikas litekeela. Oso modu errazean: ikasiz erabili, eta erabiliz ikasi. Horretarako laguntza eta babes haundia da, oso garrantzitsua, euskaltegi-tan eskuratzen dena. Euskera ikasteko eta euskaraz aritzeko aukera ematen baitute euskaltegiak.

Badira zortzi euskaltegi Buruntzaldean: bana Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Usurbilen, eta bina Hernani

eta Lasarte-Orian.

Gainera, ez da garestia, merkea baizik, Buruntzaldean euskera ikastea. Sei herrien artean badira ezberdintasun txiki batzuk, baina sei kasuetan ia-ia doakoa da, eta kasu batzuetan guztiz doakoa euskera ikastea, baldintza batzuk betez. Sei udalek ematen dituzte dirulaguntzak, eta baldintzak oso antzekoak dira.

1.000 ikasletara iristea helburua

Udalen helburua da, 2019-2020 ikasturte berrian 1.000 ikasletara iristea. Matrikulazio eta informazio epea irekita dago. Euskaltegi-tan egin behar da matrikula, eta bertan eskuratu liteke norberak behar duen informazioa. Interneten ere eskura liteke euskaltegiei eta ikastaroei buruzko informazioa, udal bakoitzaren web gunean, eta www.buruntzaldea.eus web gunean. ||

HERNANI EUSKAL JAIAK

Euskal jaien txanda, asteburuan zehar

Igandean, Dantzaz konpainiak 'Basoa' dantza ikuskizunarekin emango dio amaiera Tilosetan.

HERNANIKO Euskal Jaiak asteburu honetan ospatuko dira Kaxkoa erdigune izanda. Benito Letxundiren kontzertuak eman zion hasiera egitarauari, baina larunbata eta igande honetan antolatu dira beste ekitaldi guztiak. Udalak herriko eragileekin antolatu du programa eta berrikuntza nagusia igandean, 19:30etan, Dantzaz konpainiak eskainiko duen Basoa ikuskizuna izango da, Tilosetan. Euria eginez gero Atsegindegina eskainiko da.

Berrikuntza hori kenduta aurreko urteko egitaraua zabaldu errepikatuko da. Urteko urtera eta batez ere azken

boladan programa polita eta erakargarria prestatu dute hernaniar guztientzat, eta denak animatu nahi dituzte antolakuntzatik, Euskal Jailetan parte hartu eta ondo pasatzera.

Mota guztietako ekintzak antolatu dituzte garai bateko bizimodua goraiatzeko; Abeltzain azoka, Talo dastatzea, baserriko lanbideen erakustaldia, antzinako joakoak, txakolin dastatzea, musika, kantuak, herri kirolak, trikitixa, pelota, dantzaldia, artisau azoka, sagardo dastatzea, erromeria dantza ikuskizuna... denetarik egongo da. ||

HERNANI IGERIKETA

Ate irekiak gaur, igeriketa taldeak

Zeharkaldien garaia amaituta igerilekuko denboraldia martxan da dagoeneko, Hernaniko Igeriketa Taldearentzat ere. Eta neska-mutil gehiago kirolera erakartzeko asmoz, ate irekien jardunaldia antolatu dute gaur. Kiroldegian izango da, 18:00etan hasita, ordubeteko saioan. 9 urtetik gorako neska-mutil guztiek izango dute bertan parte hartzeko aukera. ||

HERNANI IKASTAROAK

Biteriko ikastaroetan matrikulatu daiteke

Gaur hasi eta datorren astelehenera arte, irailak 16, Biterin eskainiko diren ikastaro desberdinetan matrikulatu daiteke. Urriaren 1ean hasiko dira kurtsoa eta ikastaro batzuk. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara da ordutegia. Euskeraz dira ikastaroak eta aukera zabala dago ikastaro ugariarekin. ||

HERNANI IGERIKETA



Luis Goñik laugarren aldiz irabazi du Kontxako zeharkaldia.

Luis eta Enaitz Goñi aita-emeak, garaile eta 2garren

Pasa den larunbatean Luis Goñik irabazi zuen Kontxako Badiako igeriketa zeharkaldia. Gainera, bigarren bere semea den 14 urteko Enaitz Goñi sailkatu zen 500 partehartzailetatik gora izan zuten proban. Emaitza hauekin Luisek Gipuzkoako Liga irabazi du Master mailan eta senior mailan semeak bigarren amaitu du garaipenetik gertu. ||

Argazkia: Izarraitz Igeri Elkarte

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak INFORMATIKO-PROGRAMADORE lanpostua bete behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.

LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)